

IRITZIA

Antton Iriondo

ERREPORTAIA

Ilusio saltzaileak

BARREN

1997ko apirilaren 25a
V. urtea - 192. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



ASTE HONETAN

Maiatzaren 1a

LABen ikuspuntutik

UDALETXETIK

Hazienda buruaren
azalpenak komisioren
ordainketari buruz

BERBETAN

Maitena Zubia

KIROLA

Elgoibarko Duathloia
berreskuratu du
Urgazi elkarteak

KULTURA

Alberto Ibañez
eibartarraren
marrazki erakusketa



Maiatzaren 3an,
Elgoibarko 6.
Duathloia

“Mens sana, in corpore sano” Juvenal

MAIATZAK

AMAREN



IRIONDO
KIROLAK
Txandala

ORTUETA
Boltso 6.900 pta.
Zapatak 7.900 pta.




ARANBURU
Amaren domina
12.500 pta.

ARTEGI
Depilagailua
+
Masajeadora
+
Poltsa
5.950 pta.



ECENARRO
Hondartzarako
konjuntoak
3.600 pta.

GARATE
Konjuntoa
10.075 pta.




IKUS
Eguzkitarako
betaurrekoak
7.500 pta.

KARKIZANO
Toailak
5.500 pta.



LIZZI
Jakak
8.690 pta.tik

PITXINTXU
Kafe jokoak
17.295 pta.



SARA
Praka 7.300 pta
konjuntoa 8.600
pta.

SKANDALO
Barruko erropa
6.175 pta.



AGURTZANE
ILEAPAINDEGIA
Eguzki
tratamendua+
Boltsa 4.500 pta.

OSORO
Zapatak 7.990 pta



BAZAR DESDE
100
Lorontzia

ASTIGARRAGA
LORAK



MUXI
KIROLAK
Kamiseta
Sudadera + Praka
20.450 pta.



GOIARA
Honeymoon
Vanderbilt
2.200 / 4.400 pta.



MASUMIS
Alkandora
6.700 pta.



OASIS
Artisautza
900 / 2.600 pta.



ANTTON IRIONDO

Alternatiba Demokratikoa

Egun hauetan Euskal Herriaren historian garrantzi handia izan duten zenbait gertakarien urteurrenak aipatzea dagokigu, eta abertzale garenontzako aipagarritasun bereziak gainera: Gernikaren bonbardaketarena alde batetik, eta Alternatiba Demokratikoa delakoaren aurkezpenarena bestetik. Garratza, minbera eta konponezina lehenengoa eta itxaropentsua, irekia eta konponbiderako asmatua bigarrena. Honetan datza idatzi honen xedea.

Bi urte dira dagoeneko Euskadi Ta Askatasuna erakundeak gaurdaino bake proposamen bakarra dena mahai gainera bistaratu zuela. Bi urte errepresioa jasaten erantzun bezala.

Urte asko dira Euskal Herria eta Estatu espainolaren arteko gatazka armatuak bere horretan dirauela. Eta garbi dago behin honeraino iritsita inor ez dagoela armak besterik gabe, sutara botatzeko prest. Beste horrenbeste urte horrela jarraitzeak samina zabaltzen jarraitzeko besterik ez du balioko. Alferrik. Konponbide ausartak behar dira, eta hori da hain zuzen Alternatiba Demokratikoa.

Askorentzako burugabekeria omen da armak eskuan dituenak Bakeaz eta Demokraziaz hitzegitea, baina nork du Bake Proposamen bat luzatzeko legitimotasun gehiago gatazkaren aldeetako batek baino? Mojen kongregazio batek akaso?

Estatu espainolak ez al du erabili armarik gatazka honetan? Izan gaitezen zentzudun.

Alternatiba Demokratikoa mahai ganean dagoela, Estatu espainolaren erantzuna ezin okerragoa izan da: bakebideak jorratzen hasi ordez errepresioa areagotu egin du. Irtenbide au-

sartak aztertu beharrean betiko bidetik jarraitzea erabaki du, gaurdainoko egoera luzatuz... Noiz arte? Hurrengo pausoa aurrekoen berdina izatekotan ez goaz inora.

Aurtengo lehenengo hiru hilabeteetan 400 atxilotutik gora. Alternatiba Demokratikoaren mezulari izateagatik Zuzendaritza politiko oso oso bat gartzelaratua. Komisaldegian tortura kasuak. Bakearen eta Demokraziaren aldeko manifestaldi batean balaz zaurituak. Euskal pre-soek bere herritik urruti uzten dute beren bizia. Asko kalean egon beharko luketeenak dira, baina "demokratikoki" barruan darraite bahiturik. Josu Zabala euskal gaztea ilunpean eta ixilpean erahila. Honekin batera ETA erakundearen eraso armatuen areagotzea... Ez al dira nahikoa argudio konponbideak mar txan jartzeko?

“Alternatiba Demokratikoa partaidetza eta elkarriketa ahalbidetzen dituen tresna da, ez du ezer inposatzen”

Espainiar estatuak badaki errepresioaren bidea alferrikakoa dela eta horretan darrai. GAL, BVE, AAA, ATE... eta orain beste

antzekoren bat sortzekotan ari ote dira ba? Egoera latza luzatzeko? Samina areagotzeko?

Espainiar Konstituzioari ezetza eman eta inposatua izan zitzaigun. Alternatiba Demokratikoa partaidetza eta elkarriketa ahalbidetzen dituen tresna da, ez du ezer inposatzen. Euskaldunon etorkizuna euskaldunon esku jartzen duen tresna da. Ulegarria da Madrilek eragozpenak jartzea, baina Euskal Herriak ezin dio bizkarra eman bakea eta askatasuna ekartzera datorren proposamenari.

Gernikako bonbardaketak ez du itzulbiderik. Alternatiba Demokratikoa etorkizun itxaropentsu baten ataria da. Orain euskaldunok dugu hitza eta ekintza.

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



laburpena:2000 urte eta gero, jentilak lurraren azalera irtengo dira kixmi, @uren gartzelaria akabatzeke aginduarekin...





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,

Anton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi,

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Funtzionarien irudia hobetu nahian?

BARRENen 190. alea irakurtzen ari nintzela, "Udaletxetik" sailean Udalak egin nahi duen inkesta baten berri izan nuen. Inkesta honen helburuen artean, honako hau ere azaltzen zen: funtzionarien egungo irudi txarra hobetzea.

Udal funtzionarioei buruz ariko direla pentsatzea nahi dut. Baina, hain fama txarra al dute, bada, udal funtzionarioek? Konforme al zaudete funtzionarioek udalaren inpresioarekin? Eta ni nire barruan zebilen har gaiztoa zelakoan! Nik bezala gehiagok ere pentsatzen dutela jakiteak poza ematen dit.

Zein datu ditu Udalak eskuartean fama txar horren susmoa edukitzeko? Nondik jasotako inpresioak dira? Eta inpresio horiek Udalean lehendik baizeuden, zergatik ez da ezer egin orain arte? Esperantza handirik gabe, baina norbaitek publikoki erantzungo duen zain gelditzen naiz.

Udal funtzionarien fama txarra ez du inkesta batek aldatuko. Hori inork aldatzekotan, funtzionarioek eta agintean dauden politikoez aldatu beharko dute, beraien eskuetan dago fama ona ala txarra izatea. Baina fama txarra lana ondo eginda bakarrik meioratzen da.

Bitartean, eta zoritxarrez, funtzionatzen ez duen funtzionario dexente izango da bazterretan. Baina hauek ez dute, gainontzekook bezala, lanpostua galtzeko beldurrik izango. Hauen enpresa ez da itxiko eta ez dute gerrikoa estutu beharrik izango. Besteok estutu beharko ditugu beraien konbenioak zuzen bete daitezen. Bestela badakizue, grebara joko dutela mehatxatuko gaituzte eta horrek desmadre handiegia ekarriko luke.

Eta inork gaizki uler ez dezan, funtzionatzen ez duten udal funtzionarioez bakarrik ari naiz. Hauen egoera lotsagarria salatu nahi dut. Bakoi-tzak jakingo du bera zaku horretan dagoen ala ez. Kontzientzia arazoa?

L.L.

Irakurleei oharra:


Datorren astean, maiatzaren 1eko zubia dela-eta, ez dugu BARRENik kaleratuko. Zuen etxeotan maiatzaren 9an izango gara berriz. Ondo ibili ordura arte!

GALDERAK

◆ **“Pertsona bat etorri zaigu jakinminenez zera jakin nahian. “Norbaitek zaintzen al ditu Mintxeta parkina, zuhaitzak, kutsadura etab.? Eta horrela ez bada, zergatik?”**

Kirol Patronatuko zuzendariarekin harremanetan jarri gara eta hara hona emandako erantzuna:

“Mintxetako aparkalekuko jardinak, zuhaitzak, landareak etab.ak **Patronatuko mantenuko langileak** arduratzen dira txukun eta zainduta edukitzeaz. Aparkalekuko garbiketa lanak **Mankomunitateko langileek** egiten dituzte. Hauek astean behin egiten dute garbiketa (astartetan)”.



KEXAK

◆ Pilar ikastetxeko ikasle batzuek kexa hau plazaratu nahi dute: “Pilar ikastetxe ondoan dauden **larrak kentzeko** eskatzen dugu. Baloia jausten denean ezin baitugu hartu”.

◆ Plaza Handian umeekin egoten diren emakumeen kexa heldu zaigu: “Errosario kalea arratsaldeko 5etan ixten zaio autoen trafikoari baina hala ere, ordu horretatik aurrera **autoek kaletik pasatzen jarraitzen dute**. Plaza Handian ume asko ibiltzen da jolasean ordu horretan eta oso arriskutsua iruditzen zaigu autoak pasatzen

ibiltzea. Kalea itxita badago, autoek ez luketela pasatu behar uste dugu”.

◆ **San Pedro aldera pasiaran joaten den gizon bat** etorri zaigu ondoko kexarekin: “Jende asko ibiltzen gara egunero Lerun aldean pasiarra. Hilabete batzutatik hona **Lagun parean obrak egiten ari dira** Eibarko enpresa bat datorrela eta. Kontua da, azkenaldian **eskabadorak etorri eta lur mordo bat traban jarri dutela bertako zubian pasoa itxiz**. Eskubidea al dute hori egin eta herritarroi ibilbidea mozteko?”

BAI, ESAN?



Mari Sol Arakistain
Odol emalea

Odol Emaileen Elkarteak igandean Eibarren izango den ekitaldi batean zehar 25 alditan odola eman dutenei zilarrezko garaikurra jarriko die. 13 elgoibartar daude tartean, horietariko bat **Mari Sol Arakistain** dugu. **Odol emale** izateko arrazoiak zein diren eta zilarrezko garaikurrak berarentzat duen esanahia jakin nahian deitu diogu elgoibartar honi.

- **Noiztik zara odol emalea?** - 18 urte nitxunian osaba Erresidentzian zauan eta orduan ez zauan gaur bezela “Odol banko”rik. Odola emateko eskatu ziguten eta nik ez naban dudarik euki. Eskerrak ematen deitxu ziaben eta ze odol nakan esanez. Nire odol klasia uni-bertsala da: daneri eman leiket baina berdinetik hartu bakarrik. Gero Elgoibarren odola ateratzen hasi zianian deitxu ein ziaten eta odola edozein kasutarako bihar denez, jarraitzen eman dot.

- **Zein esanahai dauka zilarrezko garaikurra jasotzeko?** - Ba gauza inportantia da. 25 alditan edo gehixotan ere eman izan dot odola eta beti pentsau izan dot oso interesantia dala.

- **Zer egin beharko litzateke jendea odola emateko kontzientziatzeko?** - Lengo egunian odol emaleetako batek esan zian oin jendiak lehen baino gutxiko ematen dabala. Nik uste det jendiak jakin ein bihar dabala odolak zer garrantzi dakan. Batzueri bilurra ematen diue odola ateratziak baina kontutan euki bihar da edozein momentutan biharrezkua izan leikela. Jendia ez da konturatzen parian tokatzen jakon arte odolan biharraz. Elgoibarren, hala ere, beti eman izan da odol asko baina, itxura denez, beheruntz dixe.

- **Beste 25 aldiz odola emateko prest?** - Dudarik ez dakat. Ahal doten bitartian bai, zeozer pasatzen ez bajata eta ematerik ez daukatela esaten ez diaten bitartian behintzat.

Jon Aranoa
Gillermo Torres

Albaitaritza
klinika




San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 74 07 04 – 908 87 39 40

HISPANIA ASEGURUAK

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artakale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29

Ilusio saltzaileak

Saltzen, saltzen... Zenbat aldiz itxi diozu atea saltzaile ezezagunen bati? Behin baino gehiagotan. Halere, gero eta gehiago dira komertzial, errepresentante edo biajante modura lan egiten dutenak. Etxez etxe batzuk, dendaz denda, enpresetan... Gure artera ekarri ditugun hiru saltzaileen kasuan gauza nabarmena da gustatu egiten zaiela. Bokazioz dira saltzaileak eta hori igarri egiten da emaitzetan. Beraiek esan bezala, "ilusio saltzaileak" dira.

Bitxiak saltzen

"Saltzaile ona izateko intuizioa behar da, hitz jariora eta anbizioa". Hori dio, behintzat, Ramon Aranburuk. Duela 35 urte Elgoibarrera etorri eta Aranburu bitxidenda zabaldu zuen. Handik 15 urtera, berriz, biajante modura hasi zen iratzargailuak saltzen. 20 urte daramatza salmentan eta ez du bat ere damurik, "beti gustatu izan zait salmenta, jendearekin harreman zuzena izatea, bezero berriak egitea...".

Saltzailea izatearen alde txarra ere ezagutu izan du Ramonek, "hasi, autobusez hasi nintzen, autorik ez nuen eta. Denetik entzun behar izaten nuen, eta toki askotan ez zidaten hitzegiten ere lagatzen".

Esan digunez, salmenta ez da produktua erakustera mugatzen, "saldu eta geroko jarraipenak garrantzi handia du". Duela urte batzuk Nafarroan bazuen bezero zail samarra, "egun batean, diru kontuak egiten ari ginela nahastea izan zen 5.000 pta.ren gora-beheran. Elgoibarrera bueltatu nintzenen 5.000 pta. gehiago eman zizkidala konturatu nintzen. Deitu eta itzuli egin nion. Ordutik, bezerorik leialenetarikoak dut". Izan ere, saltzaileek badute engainatzaile fama baina Ramonek azaldu bezala, "saltzaile ona izan nahi baduzu, egiarekin joan behar duzu beti". Gaur egun kompetentzia dela eta


"Saltzaile ona izateko, egiarekin joan behar duzu beti"

bezero berriak egitea erronka handia da, "zerbait berezia eskaini behar duzu, prezioz ondo daudenak eta ordaintzeko erraztasunak emanaz. Eta, hori bai, saltzen duzunaz konbentzitu egon eta produktua ezagutu behar duzu". Oraingoz gauzak ondo doaz Ramonentzat, "baina denetik ikusi dut. Era guztietako jendearekin egin dut topo eta diru asko galdu, milioiak". 62 urte dituen gizon hau ari da, dagoeneko, erreleboan pentsatzen,

"dakidana erakutsi eta ardura delegatzen hasi behar naiz". Hori bai, bokazioz aritu denik ezin inork ukatu, ahoa bete egiten baitzaio Ramoni salmentaz hitzegiterakoan.

Mila Tudanca

Gaur egun bularretakoak saltzen ditu eta erredakziora boltsa handi batekin azaldu zitzaigun, elkarriketa egin behar geniola eta, tartea aprobetxatuz bertako neskei produktua erakusteko. Saltzaile ona dela bistan da. Mila Tudancak 20 urteko esperientzia du bizkar gainean. "Garbiketarako produktuak saltzen zituen enpresa amerikar batekin harremanetan jarri eta ordu libreak aprobetxatzen nituen salmentan aritzeko". Behin, Jauregi inprentako bati kotxea garbitzeko xaboa eskaini zion. Milaren berba egiteko erak grazia egin omen zion gizonari eta, xaboa erosi aurretik, inorentzat lan egitea eskani zion. Gogorra izan zela aitortu digu, "behin, Mallabiako enpresa txiki batean gizon harrosko batekin egin nuen topo. Hasieratik konturatu nintzen hark emakume bezala ikusten ninduela, baina, halere, nik nirea aurkeztu nion. Hasteko aurkezpen-txartelak enkargatu zizkidan eta hiru hilabetera, Ermuan ireki zuen enpresa berri-rako behar zuen guztia erosi zidan,



Ramon Aranburu, denda zabaldu eta gero hasi zen errepresentante



Mila Tudancak urtebete darama bularretakoak saltzen.

baita aholkua eskatu ere”.

Besteak beste, saltzaile ona izateko, “disziplina, konstantzia, planifikazioa eta intuizioa” beharrezkoak direla ikasi du. Salmenta erein egin behar da, “urtebetera jasotzen duzu uzta”.

Aldaketa beharra zuela eta, “Alaceros enpresan hasi nintzen, salmenta baina telefono bidez. Ni zuzeneko traturara ohitua nengoen, jendeari begietara begiratu hitzegitera eta telefonoz saltzea itsuen mundua iruditu zitzaidan”. Baina, esperientzia berri hark erakutsi zion, “telefonoz ere barrea ikusten dela”. Bederatzi urte eman zituen, enpresa itxi arte. Gero, ikastaro bat egin eta tele-marketing-ean aritu

tu eta hiru daramatza salmentan. Ricardo Molinarena nolabaiteko ihesaldia izan zen, “tailer batean mekaniko lanetan aritzen nintzen baina aspertuta nengoen”. Ezagun baten bitartez elikagai enpresa baten errepresentante modura hasteko aukera izan zuen. Eta horretan dihardu orditik. “Salmenta mundua beti gustatu izan zait: egun osoa kalean eta jendearekin harremanetan. Nik garbi neukan ez nuela ofizina itxi batean lan egin nahi”. Nagusirik gainean

“Lehenengo egunean bi bezero berri egin nituen eta gaur egun 500 bezeroko kartera dut”

izan gabe, bere ordutegi eta lan erritmoaren arabera aritzea, “logikoki, oso disziplinatua izan behar zara, konstantea eta lana aurrez planifikatu behar duzu”. Ricardok urdaitegiko produktuak saltzen ditu, “nahiago nuen kontsumitu eta berriz ere erosi behar den produktua izatea, esaterako, koadroak saltzea baino”. “Nobatada beti pasa behar duzu baina ni ezin naiz kexatu. Lehenengo egunean bi bezero berri egin nituen eta gaur egun 500 bezeroko kartera dut. Zintzoa izan behar duzu, faltukeriarik gabekoa”.

Egunkarietako iragarkien arabera, badirudi komertzialek diru asko irabazten dutela, “egia da saltzen baduzu dirua irabaz dezakezula. Iragarkietan 300.000 pta. kobratuko dituzula jartzen dute baina hori jasotzeko zenbat saldu behar den ez dute zehazten. Ez da hain erraza, are gutxiago gaur egun, kompetentzia handia baitago”.

Ricardok oso garbi dauka saltzaile on batek ambizioa izan behar duela, “gure enpresan, esate baterako, helburu batzuk jartzen dizkizue, noizean behin esaten digute gehien saltzen duenak etekina izango duela eta horrek asko motibatzen zaitu”. Halere, “nik sekula ez dut saldu saltzeagatik, besterik gabe. Bezerorik


onenak gehien kostatzen zaizkizunak dira, horiek direlako kalitatea eskatzen dutenak, aldatzea kostatzen zaienak, eta bezerorik finenak”.

“Salmenta erein egin behar da. Urtebetera jasotzen duzu uzta”

zen. Gaur egun bularretakoak saltzen ditu, “urtebete daramat eta oso gustura nago. Bularretako horren berri baneukan aurretik eta saltzea eskaini zidatenean, baietz esan nuen”. Kemen belardendan ezezik, etxe partikularretan ere aritzen da, “15 urtetik aurrerako emakumeentzat balio du”. Milak ondo baino hobeto definitu du bere lana, “nik ilusioa saltzen dut”.

Ricardo Molina

Gazteena da. 28 urte besterik ez di-




Ricardo Molinak urdaitegiko produktuak saltzen ditu.

Zein eskubide aldarrikatuko zenuke maiatzaren 1ean?



FELIX SARASKETA
43 urte, rektifikatzailea

Despido mailan gauzak ez daude ondo. Despidua errezegei dao gaur egun. Gainera, nik sindikatuetan ez dot sinisten, danak daude salduta.



MIKEL DAKINTA
34 urte, forjalaria

Langilien artian batasun gehiago egon beharko litzateke eta denon artean lana eta soldata banatuko beharko genituzke langabetuen artean.




PILAR GONZALEZ
39 urte, etxeakoandrea

Momentu honetan kontratu seguruago bat eta soldata duina, batez ere jende gazteari dagokionean, behin-behineko kontratu asko dago eta.



ARRATE FAURO
39 urte, hostalaritzako langilea

Despidoen gaia oso gaizki dago eta langileak beti gal-tzen ateratzen gara. Langabetuentzat oso laguntza txikiak daude eta edozein aitzakiarekin kendu ahal dizute.



IDOIA TXURRUKA
28 urte, informatikoa

Pertsona guztientzat oinarritzko eskubidea dena, lana izatea. Zoritarrez gaur egun ez da betetzen. Lanaren eskubidea aldarrikatu behar da.



IGNACIO GARATE
53 urte, ajustadorea

Oin nahi dabena eitzen dabe nagusiek. Lehen ez zan hola baina oin libertade gehixo dake, ze lana ez dao seguru. Lan segurua eta despido gitxio eskatuko neuke.

Langabezia, prekarietatea, esplotazioa...

AURRE EGIN EGOERARI!

Etor zaitez maiatzaren 1ean Donostian egingo den manifestaldira

Ordua:
GOIZEKO 11:30etan

Hasiera eta amaiera:
BOULEVARdean



Lehen helburua

LANA

Maiatzak 1 Enpleguaren alde, prekarietate eta giza-bazterkeriaren kontra

Orain dela urtebete Iruñean, Euskal Herriak jasaten zuen ekonomi eta giza egoerari buelta ematea eskatzen genuen. Orduan bizi genuen egoera larria faktore ekonomiko nahiz politikoek eraginda zetorrela salatzen genuen. Egoera honen onuradunak hauek ziren: PATRONALA eta BANKA!

Ikus ditzagun adibide garbi batzuek:

KONTRATUAK

	1991	1996
• Kontratu finkoak	%4,24	%2,80
• Kontratu partzialak	%10,09	%21,77

GAZTEAK (16-24 urte bitartekoak)

	1993	1995
• Kontratu finkoak	%26,3	%15
• Aldi baterako kontratuak	%59,9	%72,7

ETTak

1995	1996
36.352 kontratu.....	62.551 kontratu (%72ko igoera)

DESENPLEGUA

- **1993an** inolako prestaziorik kobratzen ez zutenak %64
- **1996an** inolako prestaziorik kobratzen ez zutenak %74

SOLDATAREN BILAKAERA %PIB

1984	1995
%54,01	%47,53

BANKAREN ETEKINAK

	1994	1996
• B. Santander	99.839	120.533
• BBV	86.643	126.481

Gaur egun, orain dela urtebete bezala, zera salatzen dugu:

1- Euskal erakunde zein giza agenteek, Madrilgo gobernuaren neurri eta politikariengan duten dependentzia sozio-ekonomikoa.

2- Madrilgo gobernuak eta bere kide diren UGT eta CCOO sindikatuak bideratzen duten enplegurako neurriek (erreforma laborala, pentsioetarako akordioak etab.) Euskal Herriko lan merkatuan duten eragin negatiboa.

3- Iruñea eta Gasteizko administrazioetatik egiten diren ekintzen baliogabetasuna.


4- Euskal Herriko enpresariak produkzio ugaria eta etekin hobeak lortzeko legearekiko egiten duten erabilera okerra (zabor kontratuak, ETTak etab.)

Egoera honi aurre egiteko, ekintza sindikal eta lan tresna bezala ondorengo ardatzetan finkatzen den enplegu alternatiba proposatzen dugu:

- Enplegua sortzeko eskumen legislatiboa.
- Erakunde publikoei politika industrial eskatzen diegu.
- Baskongadetan eta Nafarroan enplegu eta heziketarako Institutu bana sortzea.
- Langabeziaren prestazioa unibertsalizatzea.
- Lan ihardunaldia murriztea (32-35 lanordu).
- Politika fiskal banatzailea eta iruzur fiskalaren salaketa.
- Euskal Gizarte Segurantzza publikoa.
- Langabezia eta prekarietatearen aurkako neurriak (ordu estrarik ez, ETTak kanpora, aurrejubilazioak etab.)

Deba Behoko LAB

iSPILUA- BERI- DEGIRA



Sara
Bernedo

SARA
erropadendakoa

- **Definitu zure burua bi hitzetan:**
- Espontaneo eta positiboa.
- **Bakalaoa, musika ala zarata?**
- Musikia. Gainera gustatzen jata.
- **Moda jarraitu ala egokitu?** - Egokitu.
- **Indarra ematen dizun kolorea?** - Gorria.
- **Gona motza ala soineko luzea?** - Biak.
- **Bainujantzia ala bikini?** - Bikinia.
- **Sekula jantziko ez zenukeena?**
- Lila koloreko zerozer.
- **Ezkontzetara erropa bereziekin joaten al zara?**
- Normalian bai.
- **Ba al duzu kanpanadun prakarik?**
- Dendan bai baina nik ez nituzke jantziko.
- **Zein konjuntio egingo zenuke bizitzako elementuekin?**
- Lagun asko eta onez osatutako bat.
- **Zer da elegantzia?**
- Pertsona batzuk berez daken zeozer.
- **Erosi ala saltzea nahiago?**
- Erostea. Erropia erostia bizio bat da.
- **Erropa estilo bat?**
- Klasikua gustatzen jata.
- **Besteengan baloratzen duzuna?**
- Zintzotasuna.
- **Gustuko musika talde bat?**
- "El último de la fila".
- **Famatua izan nahi zenuke?**
- Arrazoi on bategatik balitz, bai.
- **Non dago Paradisua?**
- Neretzako Elgoibarren.
- **Sarri errepikatzen zaizun ametsik?**
- Normalian ametsagaiztuak izaten dia eta hobe ez gogoratzea.
- **Eta esna egiten duzun ametsa?**
- Oin momentuan dendia ondo jutia.

● Erabilitako radiografiak batzeko kanpaina

Mugarik Gabeko Farmazien elkarteak, erabilitako radiografiak batzeko kanpainari ekin dio Euskal Elkarte Autonomoan. Kutsagarriak diren radiografiak batzeaz bat, birziklatu ondoren lortzen den dirua 3. munduko herrialdeetara bidaltzea da kanpainaren helburua. Hortaz, etxean gordetako radiografiak herriko lau farmazietara eraman daitezke aste honetatik hasita uztaile bitartean.

● Korrikako argazkiak

AEKK Korrikan ateratako argazkiak ikusgai daudela jakinarazi nahi du. Ostar-ku eta Soarte dendetan ikusi ahal izango dira Korrika-ko erretratuak bai eta Korrika txikikoak ere.

● 96an batutako paper kopurua

Deba Beheko Mankomunitateak Elgoibar eta inguruko herrietan 1996. urtean jasotako paper eta kartoi kopuruen berri eman berri du. Horrela, Elgoibarren 19 kilo paper eta kartoi jaso ziren iaz biztanle bakoitzeko. Mendaron, berriz, 23 kilo izan ziren. Orotara, Elgoibarren 209.249 kilo paper batu ziren eta Mendaron 31.074 kilo. Deba Beheko bailarako datuei dagokienez, iaz 1.387.623 kilo paper birziklatu zen.

● AGUIFESen bilera

Senide eta gaiso psikikoen Gipuzkoako Elkarteak (AGUIFES) bilera egingo du hilaren 28an, Eibarren. Etxean gaisotasun psikikoa dituzten pertsonen senitartekoei dago bereziki zuzendua deialdia. Bilera San Andres parrokiaren izango da, arratsaldeko 4etan.

Maiatzaren 1ean jarriko da martxan Brockhaus eta Alkortaren arteko akordioa

Alkorta eta Unzueta Feliciano Agirre finantza-zuzendariak BARRENi adierazitakoaren arabera, maiatzaren 1ean gorpuztuko da Alemaniako Brockhaus multinazionalak eta Elgoibarko Alkorta eta Unzueta forjak sinatutako hirtzamina, Alkorta-Brockhaus S.L. izenarekin. Multinazional alemaniarrek 4 milioi marco, 340 milioi pta. inbertituko ditu Alkortan, akzioen %50a eskuratuko duelarik. Bi enpresen arteko elkarrizketak duela urte t' erdi inguru hasi ziren. Alkortak une larriak pasatu dituen arren, "orain hazkunde unek bizi-

tzen ari gara". Alkortak 150 langile ditu gaur egun, horietatik 10 Alyco Tools-ekoak. Felicianok esan bezala "enplegu guztiak mantenduko dira". Alkortaren urteko fakturazioa 2.000 milioi pta.koa da eta produkzioaren heren bat atzerriara esportatzen dute. Brockhaus enpresa alemaniarra siderurgia arloan aritzen da eta 800 langiletik gora dauzka 20.000 milioi pta.ko fakturazioarekin urteko.

Alkortaren jabetzakoa den Alyco Tools enpresak bere bidetik jarraituko du, duela bi urte independizatu baitzen forjatik. Alcyon 12 bat lagun daude.



Inbertsio plana

Alkorta eta Unzueta ekonomiki saneatzeaz gain, Brockhaus-ek instalazioak handitu eta iharduera indartzeko inbertsio handi bat egiteko asmoa du. Inbertsioaren zenbatekoa 1.000 milioi pta.koa izan daiteke. Felicianok esan bezala, "honek lanpostu berriak eta negozio bolumena handituko dituela espero dugu".

Balantze oso ona izan du Danobatek 96an

Joan den ostiralean 96ko batzar orokorra egin zuten Danobat-ekoek. Ekitaldian 96ko balantzea eta 97ko aurrekontuak onartu ziren bai eta Grupo Danobat eta MCCko erreminta makinaren ataleko informazioa jaso ere. Batzarrean Danobat-eko gerentea, MCCko zuzendari-ordea, junta errektorako kide guztiak eta 220 bat bazkidek hartu zuen parte, nahiz eta bazkide guztiak deituta egon. 96ko balantzea "oso ona" izan da Danobat kooperatibarentzat. "Pertsonako fakturazio ratioak hazkunde inportantea izan du; kalitate atalean helburu inportanteak lortu dira, konpetitibitateari dagokionean, Europako enpresa na-

gusienaren parean gaudelarik". 90. hamarkadako krisia gainditua dagoen ustea dute Danobateko ardura-dunek. "Duela bi urtetik hona eskaria igo egin da emaitza ekonomiko oso onak izan ditugularik. 1997an ere, bide beretik jarraitzea espero dugu".

Irabazietatik %25a erretserba fondorako erabiltzen da. %10a ekimen sozialak bultzatzeko izan ohi da eta %65a bazkideen artean banatzeko. Ekitaldian junta errektorako lau kide eta presidentea aukeratu zuten, Ales Arrieta hain zuzen.





Marrazki eta Ipuin lehiaketako sari banaketa

Asteazkenean banatu ziren Udal Liburutegiko Marrazki eta Idazlan lehiaketako sariak. Guztira 389 lan aurkeztu ziren, horietatik 11 idazlanak eta 278 marrazkiak. Liburutegia umez bete zen sari banaketa zuzenean ikusi, irabazleak eza-gutu eta zoriontzeko asmoz. Marrazkien atalean hiru akzesit banatu ziren: 1. mailako Miriam Arosa, 2. mailako Xabier Lopez eta 4. mailako Maria Domingezek jaso zituztelarik. 2. saria 1. mailako Alba Esnalentzat izan zen eta lehenengoa maila bereko Ines Gabilondorentzat. Idazlanei dagokionean, berriz, bigarren Antton Ecenarro izan zen, 6. mailakoa eta txapelduna, berriz, Maite Uriarte, DBHko 1. mailakoa.

Madalako elizako diru kontuak

Madalako elizako administrazioari buruzko datuak heldu zaizkigu erredakziora eta hona hemen 96ko balantzearen berri:

Iaz 2.080.149 pta.ko sarrerak izan zituen elizak Gastuak, berriz, 1.921.482 pta.koak izan ziren. Hortaz, 96an 158.667 pta.ko irabaziak izan dira. Sarreraren artean aipatu beharra dago, 983.910 pta. elizako aparteko kolekten bidez jasotako dirua izan dela. Kopuru hau Donostiara bidaltzen da Caritas, misioak eta eliz barrutiko beharrak ordaintzeko. Sarreraren artean 206.412 pta. Madalako eliz barrutirako eskupekoak izan dira. Diru kopuru hau elizako mantenu eta berritze lanetarako gordetzen da. Hainbat urtetan 2.153.756 pta. pilatu dira zeregin horretarako. Madalako elizako azken urteotako balantze ekonomiko arrunta kontuan izanda, gaur egun 1.848.728 pta. dira Madalako elizak aurreztuta dituenak.



artxiboa

Zortzi-bederatzi kuadrila izan ziren Tanborradako bileran

Trinitate jaietan izango den nagusien tanborradako bilerarako deiak arrakasta dexente izan zuen herriko gazte kuadrilen artean. Antolatzaileetako batek esan digunez, “herriko zortzi edo bederatzi bat kuadrilatako ordezkariak elkartu ginen bileran, guztira dozena bat lagun”. Kuadrila kopuru honekin iazko tanborradan parte hartu zuen jende kopuru berdina izango da aurten ere; “beste kuadrila bat ere animatzekotan dabil”. Lehen entsaiua larunbatean, hilak 26, goizeko 12:00etan izango da merkatu plazan. Trinitate jaiak bitartean entsaiuak asteazkeneo (21:30etan) eta larunbat eguerdiro izango dira merkatu plazan.

Maiatzaren 4an, Gaixoen Egun Mundiala

Elgoibarko Osasunaren Pastoralak Gaixoen Egun Mundiala ospatzeko asmoa du. Maiatzaren 4rako ordez, maiatzaren 3rako, larunbata, antolatu dituzte hainbat ekitaldi. Arratsaldeko 7etan meza izango da San Bartolome parrokiaren ondoren lagun arteko afaria Txarriduna jatetxean. Afarira joan nahi duenak parrokiko 74 08 42 zenbakira deituta eman dezake izena.

Elgoibar-Zaldibia pilota norgehiagoka

Herri Arteko Pilota Txapelketa hasi da dagoeneko. Lehen tandan Elgoibarko bikoteei zaldibitarren aurka jokatzea egokitu zaie. Joaneko partiduen emaitza Zaldibia 2 eta Elgoibar 1 izan da. Hortaz, ostiralean, hilak 25, Ikastolako frontoian izango den norgehiagokan elgoibartarrek 3 eta 1 irabazi beharko dute. Lagunak Pilota Eskolakoek pilotazale guztiak animatu nahi dituzte Ikastolako frontoira joan daitezen elgoibartarrak animatzeko. Gaueko 9:30etan hasiko dira partiduak. Bikoteak hauexek dira: Arrillaga eta Perea kadeteetan; Leon eta Balzola jubentetan eta Ansola eta Alzibar nagusietan.



artxiboa

● HBk EAJ salatu zuen ibaiaren mozketa dela eta

HBk prentsurrekoan araztegi edo depuradoraren gaia aztertu zuen, "daukagun informazio guztia prentsan jaso dugu, komisioetan ez baita ezer hitzegin. Gaia Aldundiaren esku dago baina Garate hor dabil kokapenarekin bueltaka, nola edo hala ibaiaren mozketa egin nahi du eta ". Pello Mendizabal mozketaaren aurka agertu zen, "Iparraldeko Ur eta Ibaien Konfederazioa bai eta Aranzadi ere, mozketaaren aurka azaldu ziren bere garaian. Halere, PNVk beti egin du mozketaaren aldeko apustua lur industrial sortzeko helburuarekin". Izan ere, HBko ordezkarien esanetan, "jakin badakigu GYA izeneko promotora aspaldi sortu zela mozketa egin eta gero sortuko den gune industrialeko lurrak gestionatzeko". Oraindik gauzak ez daude oso garbi eta, "litatekeena da azkenean Aldundiak mozketarik ez egitea erabakitzea". HBren ustez, "Elgoibar etorkizunean enpresa txikietan oinarrituko da eta beharrezkoa da Sigmako lur industrial aprobeztatzeko, Olaso-Sigma eta Ibai-Tarte-Lerun-Arriaga industriguneak bultzatuz".

● Plenoa 6etan


Gaur, ostirala, hileroko plenoa izango da Udaletxean arratsaldeko 6etatik aurrera. Besteak beste, alkatetzako dekretuaren onespina, Celestino Rovira jaunaren bigarren lan bat egiteko eskabidea, eta Urruzuno eta Arriaga inguruetako Antolamendurako Arau Subisidiarioei buruz eztabaidatuko da.

Isaak Loiolak komisioetako ordainketei buruzko azalpenak eman ditu

PPko zinegotziak egindako salaketei erantzun zien

Joan den astean PPko zinegotzia den Juan Carlos Abianek egindako salaketen aurrean erantzuna eman zuen astelehenean Isaak Loiolak. Haziendako lehendakariaren hitzetan, "lehenik eta behin, esan beharra dago Abianek berak baietz bozkatu zuela batzordean Patronatuko bileretara joateagatik ordaintzea eztabaidatu zenean". Era berean, gaiak austeritatearekin zirikurik ez duela azaldu zuen, "Patronatuari dago-kionean konkretuki, iaz 10 bilera baino ez genituen egin. Erabakia koherentziaz hartu genuen, Patronatuko bilerak gainontzeko komisioen parean jarzteagatik".

Bestalde, Loiolak zinegotzi eta alderdiek hileko jasotzen dutena azaldu zuen, "alderdi bakoitzak 40.000 pta. eta ordezkari bakoitzeko 10.000 pta. PNVk orain arte ez du Gilermo Garaterena jaso, alkatea denez eta liberatua dagoelako, baina be-



Hazienda burua komunikabideei azalpenak ematen.

rez, ordezkaria ere badeenez, kopurua zor zitzaigun. Izan ere, orain arte 6 ordezkari bagina bezala ordaintzen zitzaigun eta 7 gara". Era berean, komisio bakoitzeko lehendakariak 5.000 pta. jasotzen ditu eta bokalek 3.000 pta., Bozeramaleen Batzordera joateagatik eta Gobernu Batzordeagatik, berriz, 3.000 pta. "Dirua alderdira doa eta bakoitzak erabakitzen du kopuruarekin zer egin: zinego-

tziei eman dena, zati bat alderdirako laga, dena alderdirako...".

Isaaken hitzetan, "Abian herritarrak nahasi nahian dabil. PP eta bere ordezkaria desenmaskartzeko ordua iritsi da. PPK Donostiatik diseinatu du oposizioko politika herri hau ezagutu gabe eta zer komeni zaion kontuan izan gabe. Juan Carlos Abianek argi utzi du gai ez izateaz gain, arduragabe bat ere badela".



1996an 96 milioitan jaitzi zen Udaletxeko zorra

1996ko datuen arabera, Udaletxeko egoera ekonomikoa gero eta hobea da. Isaak Loiolaren esanetan, "gastuaren kontrolak, austeritateak eta bilketaren gestio onak emaitzak eman ditu". 1995. urtearekin parekatuz, iaz %362 gehiago aurreztu zen, inbertsio maila igoz eta maileguko dependentzia jaitziz. 1996. urterako

1.105.500.000 pta.ko aurrekontua zegoen aurrikusita baina azkenean, 1.168 milioi finantziatu ziren Loiolaren esanetan, "uste baino sarrera gehiago izan ziren eta". Honek bada, EAJko ordezkariak hainbat zenbaki eman zituen hau guztia azaltzeko: batetik, 1.116 milioiko gastua egin zen eta honi beste 40.696.000 pta.ko kreditua gehitu be-

har zaio, "iaz gastatu ez eta aurtengo aurrekontuetarako laga dena". Zorra, berriz, 1.198 milioira jaitzi zen; "1994an 1.488 milioikoa zen". Guztira, beraz, "23.500.572 pta.ko remanentea geratu zen. Remanentea deitzen zaio kajan geratzen denari, oraindik ere ordaintzeko eta kobratzeko dagoen diru kopuruari, hain zuzen".

29 urteko elgoibartar hau sikologian lizentziatua da eta gaur egun Arrasaten dihardu lanean Ana Oiartzun eibartarrarekin. Sikologiaz gain hiru urtez Bilboko Sustraia eskolan sexologia ikasi zuen. Bi arrazoik bultzatu zuten Maitena Zubia sexologian espezializatzen: pertsonalki asko gustatzen zaion gaia izateagatik eta gizartean gai honi heltzeko beharra dagoelako. Gizartearekin oso konprometitua dagoen emakumea da eta oso ondo dakite hori Maitenaren ingurukoek, horien artean Errotatxoko lankideek.

MAITENA ZUBIA

“Mundu guztiak dauka sexualitateaz mintzatzeko beharra”

– Nolatan Arrasaten?

- Arrasateko Udalak deialdia egin zuen informazio eta orientazio sexualeko bulegoa irekitzeko. Ana Oiartzun eta biok ikusi genuen gizarteko talde ezberdinetara iristeko modu bat zela, gainera instituzio batek, beraz, aurkeztu eta onartu egin gintuzten.

– Zein da zuen lana?

- Bulegora hurreratzen den jendearen zalantza argitu, bibliografiak eskaini, telefono linea ere badaukagu, sentsibilizazio kanpainak, ikastaroak, hitzaldiak...

– Zein da lanaren alde txarra?

- Publizitatearena, hau da, bulegotik gauzak presatzea kanpora begira. Publizitatea antolatu, erakargarria egin... Hasi berriak gara eta ohitura falta daukagu. Emakume eta Gazteria

taldekoek laguntzen digute baina, halere, kosta egiten zaigu.

– Alde onik izango du.

- Jendearekin egon eta pertsona ezberdinak ezagutzeari. Batzuetan zuk erakusteari gain, jendeak zuri ere asko laguntzen dizula ikusten duzu. Galdera eta zalantza argitzeak satisfazio handia ematen du. Guk gaia serio tratatzen dugu eta jendeak asko eskertzen du, gizartean sexualitatea tratatu txarra duelako, batez ere komunikabideen aldetik.

– Heziketa sexualari buruzko ikastaro bat antolatzen ari zara.

- Bai, Eibarren. Orain kriston polemika dago lege berriak direla eta. Lege horien arabera maila eta irakasgai guztietan ingurugiroa, elikadura, informatika, sexologia eta abar landu be-

har dira. Matematikan, esate baterako, sexologia ere eman behar da eta magistratuz lizentziatuak daude, ez daude prestatuak. Guk erdi-bidea bilatu nahi dugu, profesionalok tekniko papera betez, programak eginaz, gero irakasleek gletan erakutsi dezaten. Momentuz ez dago ezer eta horretan ari gara.

– Errotatxon ere bazaude.

- Duela urte eta erdi edo sartu nintzen. Ideia lehendik nuen buruan eta pertsona jakin baten heriotzak konpromezua hartzea bultzatu ninduen.

– Oraindik zaila al da jendearen artean sexualitateaz hitzegitea?

- Seriotasunez bai. Txiste edo morbo modura ez, ze komunikabideek ere horretara bultzatzen gaituzte. Baina serio hitzegiteko heziketa mailan ez da pausorik eman, ez dago ohiturarik.

Profesionalok badakigu kortea ematen duela galderak egitea baina nik eskatuko nuke ez izateko lotsarik. Mundu guztiak dauka sexualitateaz mintzatzeko beharra. Jendeak esateko asko du, ze sexualitatea gainean dugun bizipena da.

– Ezjakintasun handia dago?

- Ez. Nahastea sortzen duen informazioa dago eta horri buruz ez dugu hausnartzen. Jendeak ez du iritzi kritikorik informazio horrekiko.

– Ikusten al duzu irtenbiderik?

- Bai, Arrasateko Udala eskaintzen ari den moduko zerbitzua herri gehiagotan egon beharko litzateke. Aurrerapauso bat litzateke.

Amaia Gorostiza


BESTEAK ESANA

“Lau urte daramatzat berarekin eta nire lana ez nuke ulertuko Maitena gabe”
ANA OIARTZUN, lankidea

KiliBARRREN

Apirilaren 25a
39. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



H

ilabete honetako argazkia Jose Antonio Zubiaurrek laga digu. Argazkian ikusten den bezala, Azpilgoetako eliza kanpoan daude lau lagun hauek. Jose Antonioren esanetan, lehenengo jaunartzea ospatzen zuten eta 1951. urtean ateratakoa da.

Hona hemen erretratuan azaltzen direnak:

Ezkerretik hasita: **Jesus Mari Castañares, Arantxa Diez, Jose Antonio Zubiaurre** eta **Roberto Areitio**.

Mendaroko

BASERRIETAKO

bizitza

Baserriko bizitza lasaia da baina lan asko egin behar da. Askotan entzun izan dugu esaldi hau baserritarren ahotan. Mendaron gaur egun 55 baserri inguru dago eta hauen tatak gutxi batzuk bakarrik bizi dira baserriko lanetik. Esplotazio handia duten baserriak egon arren, gehienetan baserriko kideren batek kalean ere egiten du lan. Hilabete honetako erreportaian hiru baserrietako sukaldetan sartu gara hainbat kontu jakiteko asmoz.

Lasalde eta negutegiak


Lasalde baserria Aran-Erreka auzoan kokatzen da eta bertan bizi dira Juanito Loiola eta familia: emaztea, bi seme-alaba eta anaia. Garai batean gurasoena zen baserriaren ardura du gaur egun Juanitok darama. Aintzina baserri hutsetik bizi baziren ere, orain Juanitok kalean ere egiten du lan, “gurasuak baserrietik bizi izan zian eta gu ere hasi ginan baina ikusi genduan etzauala etorkizunikan eta

kalera jun ginan lan bila”.


Lasalde baserrian ganadua, negutegiak, ortua... denetik dago. Halere, nahiko baserri txikia da eta Juanitoren esanetan baserriak ematen duena ez da nahikoa, “bizi, bizi daiteke, baina seme-alabei karrera bat eman nahi badiezu ez da nahikoa”. Hiru behi dituzte eta duela 4 urtera arte kalean banatzen zuten esnea, “utzi egin gendun esnia partitzia eta oin behiak gehixenbat zelaixak garbi mantentzeko ditzugu”.

Negutegiak ematen dizkio irabazi batzuk Juanitori. Gaur egun hiru negutegi dituzte, 600 m2 guztira eta bertan batez ere tomatea, letxuga eta bainak lantzen dituzte. Produktu hauen salmentaz aritu zaigu Juanito solasean, “Mendaroko dendetan sal-tzen ditzut eta asko dauanian Elgoibarko fruterieri ematen dizkiogu 20 bat dozena. Urtian bost edo sei mila letxuga jasotzen ditzugu”. Irabaziak jasotzen omen dira baina negutegietan lan asko egin behar da, “landariak gaixua azkar hartzen dau eta hori pasau ez dadin, tratau ein bihar da. Diru pisikat eman bai, baina kostata”.

Letxuga ondo saltzen omen da, tomatea ez bezala,



Juanito Loiola, Lasalde baserriko negutegien aurrean.



Agustin Lazarobasterrek 36 buru ditu Agarren.

“tomatia kantidade haundixa eskatzen badizue gertau laike egun horretarako nahikua ez gorritzia. Eta bainak egunero jaso bihar dia, ze beste la gehixegi hazten dia”.

Agarreko ganadua

Agustin Lazarobaster, emaztea eta bi seme-alaba bizi dira Agarre baserrian. Hauek baserritik bizi dira nahiz eta duela gutxi semea kalean hasi den lanean. Negutegia eta ortua badituzte baina hauetatik jasotakoa etxean kontsumitzen dute. Ganaduari dagokionez, berriz, esplotazio handia dute: 36 buru guztira.

Ganadua esne eta okelatarako da, “esnia kalia partitzen dot egunero igandetan ezik, eta bi egunetik behin Iparlat enpresari saltzen diogu, 400 litro gutxi gora-behera”. Okelari dagokionean, “txahala gizentzen daniel harakinari saltzen diogu eta behixak haztiarren dirulaguntzak jasotzen ditzugu”.

Teknika aldetik ondo baino hobeto prestatua dago Agarre baserria. Agustinek esan bezala, “lehengo eran ez dao ganaua eramaterik. Ganauen parrillia dakagu eta belarra eskuz biharrian traktoriakin bildu, jaso, ebagi eta husten dou. Hilerak itxeko segaduria dakagu eta ondo moldatzen gera”.

Gaur egun baserritik bizi diren arren etorkizuna beltza ikusten du Agustinek, “etorkizun latza du base-

riak. Irabazteko ez da gehixegi etaraten eta lan asko ein bihar da. Hemen ez dao kalia bezelako ordutegi fikorik”.

Andikoetxe baserria

Martin Ulazia, emaztea, seme-alabak, suhina eta iloba bizi dira Andikoetxen. Hauek guztietatik bik kalean egiten dute lan. Gaur egun sei pertsona bizi diren arren garai batean 11 bizilagun izan ziren. Oraingoz 90 urteko Martinek darama ardurua baina etorkizunean Txomin Ulazia semeak



Martin Ulaziak eta familiakoak Andikoetxe ortuetan jasotakoa etxean kontsumitzen dute.

jarraituko du baserriarekin.

Bederatzi buru dituzte eta egunero esnea banatzen dute kalean. “Behixak ezezik, 12 oilo eta lau bat oilar ere badakaguz eta txerrik euki izan dou”. Negutegi bat dute eta ortuxoa ere bai. Bi hauetatik ateratakoa etxean kontsumitzen dute. Txominen esantetan ortuan gauza asko dute: patata, letxuga, porrua, berakata, baba beltza, tipula, piperra...

Baserrian Martin Ulaziaren anaia Alejandro egoten da lanean eta berak esan digunez ortuak lan handia ematen du,

“gorriña ez etortzeko sulfatua bota bihar da eta ondo eukitzeko lana ein bihar. Belarra ere moztu ein bihar da... Eta lanik gehixena eskuz eitxekua da”.

Euririk aspaldi egin ez duela eta gaiaren inguruan aritu gara solasean. Alejandrok esan digunez, laster euririk egiten ez badu arazoak egongo dira, “euri gitxi ein dau eta ortuak ura bihar dau. Norberak ez badu uretatzen, gaizki egongo da gauzia”.

❖ Santana jaien kartel eta egitarauaren azal lehiaketa

Aurten ere, Santana jaietako kartel eta egitarauaren azalaren lehiaketa antolatu du Udalak. Lanen neurria 60x40 cm.koa izan behar da, teknika librea eta euskarri gogorrek. Lehiaketan mendarotarrek bakarrik har dezakete parte eta lanean derrigorrezkoa da “Santana jaiak, 1997ko uzatilaren 24tik 27 ra. Mendaro.” jartzea. Irabazleak 25.000 pta. jasoko ditu eta lanak maiatzaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira, lema batekin eta kartazal itxi batean egilearen datuak sartuz. Epaimahaiak saririk ez ematea erabaki dezake eta lan guztiak, sariak banatu eta 30 eguneko epean jaso ahal izango dira. Epe horretatik aurrera, lanak Udalaren esku geratuko dira eta egileek eskubide guztiak galduko dituzte. Datu gehiago izan nahi duenak Udaletxera jo dezake.

❖ Iker Soraluzekek emaitza bikainak lortu zituen

Jubeniletako Arrate eskubaloi taldean jokatzeko du Iker Soraluze mendarotarrak. Gazte honek sei gol sartu zituen joan den asteburuan taldeak Cantabriaren aurka jokatu zuten partiduan. Eibartarrek jubencil mailako Espainiako Txapelketako finaleko sailkatzea lortu zuten.

Bestalde, Elgoibarko eskolarteko txapeleketan parte hartzen duen San Jose Ikastolako Mendaro B taldea lehenak doa bi partidua irabazi eta gero. Eskubaloian aritzen den mutilen talde honek alebiren mailan jokatzen du.

Mendaroko Lili Moon taldea Zumaiako Ilargi tabernan

Cebri, Leire, Joe eta Inak osatzen dute Mendaroko Lili Moon taldea. 1994. urtean sortu zen talde honek dagoeneko hainbat kontzertu eman ditu maketa atera zutenetik. Hil honetan Donostiako “El muro”

tabernan jo dute, joan zen ostegunean Bergarako Jam aretoan izan ziren eta apirilaren 19an Zumaiako Ilargi tabernan eskaini zuten kontzertua. Taldekideak oso pozik daude izan duten harreragatik.



Trinitate jaiak

Maiatzaren 24an hasi eta maiatzaren 26ra bitartean luzatuko dira aurten Mendaroko Trinitate jaiak. Hasi, hilaren 24an hasiko dira arratsaldeko 3etan kanpai soinu eta txafliuekin. Maiatzaren 25ean, berriz, goizeko 9etan kalejira izango da Mendaroko txistulariekin eta goizeko 11:30etan Meza nagusia Trinitate ermitan Sotero Arakistain zenaren omenez.

Mezaren ostean Mendaroko abesbatzak kontzertua eskainiko du eta ondoren Ospas eta Sabin trikitilarien kontzertua izango da. Eguerdiko 12:30etan emango zaie amaiera ekin-tei aizkolari eta trontzalariek eskainitako herri kirolen ikuskizunarekin.

Amaitzeko, hila-

ren 26an, astelehena, meza izango da Trinitateko ermitan goizeko 11etan. 12etan Ikastolako haurrek bertso saio aparta eskainiko dute eta ondoren hamaiketako egingo da Laja eta Landakanda trikitilarietako piezek alaituta. Iluntzeko 7:30etan urteroko makailo jana izango da Aizpe elkartearen eta gaueko 10:30etan hasita erromeria Laja eta Landakanda trikitilarietako zelaietan.





Demetrio Vallejo Astigarraga

(1898-1978)



Garai batean gizonetako ez zuten gantzontzilorik erabiltzen. Lehendabizi erabiltzen hasi zirenak herriko sendagilea eta "botikarioa" izan ei ziren. Gero-txoago, herriko alkatea eta zinegotziak.

Gure auzo bateko udalak ere bi gantzontzilo pare erosi omen zituen behin. Pare bat alkatearentzat eta bestea berari lagundu behar zion zinegotziarentzat. Baina alkateari laguntzen, bi-hiru zinegotzi aritzen zirenez, gantzontzilo pare bakarra zinegotziz zinegotzi ibiltzen zen. Egun batean Patxiri tokatu zitzaion gantzontziloak jantzi beharra. Lehenengo aldia zuen eta, jira eta buelta, ezin asmatu nola. Bere aurretik erabili zituen zinegotziari galdetu zion orduan eta berehala erantzun zion honek:

- Kaka-markarekin atzera, moteil, kaka-markarekin atzera!!

Zinegotzi kontuez dihardugunez, eta etxe bereko bi zinegotzi egotea oso normala ez denez, gainera aita-emeak izanik, gutxiago oraindik, aipa dezagun gaurko pertsonaia. Ez dakigu gantzontzilo kontuan nola konponduko ziren, baina gure pertsonaia, esan bezala, bere aitarekin batera zinegotzia izan zen. Gerora, espetxea ere denbora luzez ezagutu zuen.

Nor ote da Elgoibarren jaio, hazi eta bizi den pertsonaia hau?

Testua: Felix Etxeberria "Parapan"

(Erantzuna BARREnera ekarri)

- 1898ko abuztuaren 14an jaio zen Seston. 10 anaia-arreben artean 7.a zen.
- 7 urterekin Elgoibarrera etorri zen. Ikasketak egin ostean "Forjas de Elgoibar"en egin zuen lan; geroago, "Gabilondo y Cia."n, beti "akabatzaile" lanetan. Fama handia hartu zuen lanbide honetan, bere entzutea erbestera ere iritsi zelaririk. Herriko onenetarikoak zen bere lanean.
- Crucita Arriagarekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituen, bi gazterik hil ziren.
- Begira zein izan zen Demetrio kirolean: Elgoibar F.B.C.eko fundatzailea; lehenengo bazkidea eta lehendakaria. Ekipo honetan jokatu zuen, bai Eibarko "Izarra"n, bai Irungo "Real Unión"en, bai eta Donostiako "Esperanza"n ere. Azken klub honek omenaldia egin zion.
- "Txatarrerria" bat erosi eta urte batzuetan bertan aritu zen salerosketan.
- Odola eman zuen bizi guztian, bai Elgoibarren eta inguruko herrietan ere. Omenaldi asko jaso zituen, besteak beste, Madrilan. Mesede asko egindako gizona zen, "kasu berezi bat".
- Aita erdalduna izan arren, Demetrio euskalzale, abertzale eta euskaldun jatorra zen.
- Hauxe benetan gizon popularra eta maitatua herrian eta erbestean. Gizon batua familiarekin, alaia eta hizlari ona.
- Kirola zuen gustuko; irakurtzea, lagun artean abestea eta bromak kontatzea. Egun asko ondo pasatako gizona.
- 1978ko urtarrilaren 15ean hil zen, bizi-tza eder berri batean parte hartzeko asmoz.

Juanito Gorostiza

Nor ote da?

Joan den asteko "Nor ote da?" lehiaketaren erantzuna **SABIN OSORO** da. Asmatu dutenak hauek izan dira: Lucia Arrieta, Idoia Uriarte eta Ana M. Mugerza.



ARRATS
Pub

Tel: 75 50 58
Mendaro

1973ko kintoak
Mendaroko "Sociedad Buztin Balle"n
elkartuko dira, **Maiatzaren 1**ean.

Izena emateko: **ARRATS PUB**
Epea: **hilak 30**ean bukatuko da

A

ste honetako erretratua **Agapita Soraizek** lagatakoa da. San Frantzisko kale bazter batean aterata dago, 1949. urteko apirilaren 3an.

Argazkiko neskatoak bizikleta baten inguruan ageri dira, batek daki zenbat amorrualdi hartutakoak izango ziren bizikleta zela-eta. Umeen kontuak.

Gaur egun neskato hauek emakume helduak dira. Ikus dezagun zein diren:

Atzekoa, **Arantxa Arrieta**; eskumakoa **Regina Arrieta**; bizikleta gainekoa **Milagros Astigarraga** eta ezkerrekoa **Arrate Astigarraga**.



Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21

**HERRI-
GAIN**

ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

DOIERKI
IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15
● ☎ ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



“Kirolian oso konpetitibua naiz neure buruakin”



Tomas Arrieta

■ **Adina:** 26

■ **Parrandarik?** Lantzia behin bai

■ **Deskantsatzeko altzaririk egokiena?** Ohia

■ **Zer falta zaio Elgoibarri?**

Inplikazio falta daukagula, neu ere barne

■ **Eta Tomasi?** Serenidadia

- **Zer moduz Azkoitia-Azpeitia marathoi erdian?** - Ondo xamar. Iaz ere eon nitzan eta aurten ere bai. Neri gogor xamarra eitzen jata, jende nahiko ona juten dalako edo... Karre-ra azkar xamarra da. Zuk ere haiekin jun nahi dozu eta eman eitzen diozu eta azkenian neka-neka amaitzen dozu.

- **Lehen elgoibartarra izan zinen, ez?** - Bai, jun ginanon artian forman ontxuen ibili nitzana izango nitzan ta... Ein nunakin gustura nao, pentsatzen naban horrenbeste eixia.

- **Denbora jakin bat egiteko asmoarekin joan al zinen?** - Bai, ordu bat eta 24 minutu ein nitxun, pentsautana nakana, kilometro bat 4 minutuan eixia. Ni bezelako afizionau xamar batentzat nahikua da. Saltakan hasten zaizenian lasterketa bat bukatzia nahi izaten dozu. Gero Behobia eixia. Ondoren lasterketa gehixotara jun ahala, erlojua zaintzen hasten zera; zure buruari gehixo eskatzen eta gehitxuo entrenatzen. Topera heldu arte.

- **Topera heldu al zara zu?**

- Nahikua obsesionauta nauala uste dot eta hemendik aurrera masajistekin, medikuekin eta horrelako gauze-kin hastia izango zan eta horrek, benetan, ikaragarritzko pereza ematen dit. Ikusten det plan batekin eta gehixo entrenatzen hasitxa insatisfaziua totala izango zala, ze beti nahiko neuke gehixo lortzia, sekula ez nitzake neure buruakin gustura eongo.

- **Ez al daukazu orduan lortzea nahi duzun helbururik?** - Bai, lortu

doten horretan mantentzia eta igual maratoi oso bat eixia, Donostiakua adibidez. Dudik gabe bukatziakin nahikua izango neuke.

- **Nahi izatea ahal izatea al da?** - Nere kasuan bai. Oso burugogorra eta konpetitibua naiz neure buruakin. Nahikua motibatzen banaiz nahi dotena lortu nahi izaten dot. Eboluzio azkarra izan dot saltakian baina forztaturakua. Gauza batekin hasten naitzenian derrepentian emaitza dexentia lortu nahi izaten dot. Eta hori dala-ta astakaerixak eindakua naiz.

- **Zein adibidez?** - Astakerixa bat ez, asko. Kirola errebentau arte eixiak ez zaitxu mejozatzera eruaten, ez diozu deskantsurik ematen gorpuzari ez eta emaitzik ikusten ere. Hori dala-ta sobrekarga muskularrak euki izan ditzut, belaunak eta tendoiak izorrau... Horregatik aurten saltakia gutxixoa ein det eta igerixan hasi naiz. Muskulaziua ere laga ein det eta mejoixia igarri dot giharrietan. Oin laixaio nabil.

- **Saltaka ezezik, beste kirol batzuk ere egiten dituzu?** - Neri berez mendixa gustatzen jata eta horregatik hasi nitzan saltakian, mendixan osagarri gisarako.

- **Mendi trabesiak oso gogoko dituzu.** - Pirinuetako tipikuak daukat einda baina tontorrek ein eta gero mendixak errepikatziak graziarik ez dau eitzen eta hola hasi nitzan trabesiekin. Oin dala bi urte GR11 deitzen dana eitzen hasitxa nao. Aragoi eta Tarragona partia einda dakat eta aurten Nafarrua eixteko gogua dakat.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK (Apirilak 19, 20. jardunaldia)

SASKIBALOAIA

■ **Benjamin mutilak** ■

Ikas Kirol 6 - Ikas Marrazo 14
Ikas Txut 20 - Mendaro A1 4
Mendaro A2 6 - Pilar Lakasitos 2
Ikas Zirt 12 - Pilar Flash 6

■ **Benjamin neskak** ■

Pilar Kas 6 - Mendaro B 2
Ikas Zart 24 - Ikas Izurde 6
Pilar Usoak 6 - Ikas Izar 4

ESKUBALOAIA

■ **Alebin mutilak** ■

Mendaro D 7 - Ikas Eguzki 4
Herri Boomerang 6 - Pilar All Star 3
Pilar Ajax 12 - Ikas Ilargi 8
Pilar S. Germain 3 - Ikas Axelkoak 13

■ **Alebin neskak** ■

Ikas Laino 2 - Herri Women's 0
Pilar Mix 0 - Ikas Beder 12
Pilar S. Girls 4 - Ikas Trumoi 2

AGENDA (Apirilak 26, larunbata)

SASKIBALOAIA

■ **Ben. mut. (Herri Eskolan)** ■

9:30 Mendaro A2 - Ikas Zirt
12:00 Ikas Txut - Pilar Lakasitos
10:30 Ikas Kirol - Pilar Flash
11:00 Ikas Marrazo - Mendaro A1

■ **Ben. nes. (Herri Eskolan)** ■

10:00 Ikas Zart - Mendaro B
11:30 Pilar Usoak - Urasandi
12:30 Ikas Izurde - Ikas Izar

ESKUBALOAIA

■ **Alebin mutilak (Ikastolan)** ■

10:30 Ikas Eguzki - Pilar All Star
11:15 Ikas Axelkoak - Ikas Ilargi
12:45 Pilar S. Germain - H. Manchester

■ **Alebin neskak (Ikastolan)** ■

9:00 Ikas Trumoi - Ikas Txingor
12:00 Ikas Laino - Pilar Mix

Maiatzaren 3an izango da Elgoibarko VI. Duathloia

laz ez zen Duathloirik egon Urgazik antolatzerik izan ez zuelako

Urgazi Triathloi taldeak, Kirol Patronatuaren eta Radio Estudioren laguntzaz, Elgoibarko Duathloia 6. edizioa antolatu du datorren maiatzaren 3rako, larunbata. 1990ean egin zen lehen aldiz bi kirol konbinatzen dituen lasterketa bikoitiz hau. Iaz ordea, ez zen antolatu. Urgazi Triathloi Taldea kide gutxiak osatzen duenez, antolakuntzaren arduradunak izendatzeko arazoak izan zituzten, eta hortaz, ez egitea erabaki zuten.

Elgoibarko duathloia-
ren etorkizuna kolokan
ikusten duela azaldu digu
Urgaziko kide batek.
"Klub txikia gara, lagun-
tzeko prest jendea egon
badago baina arazoa, an-
tolakuntzaren ardura nor-
baitek hartu behar izaten
duela da. Urgazi osatzen
dugun guztiak kirolariak
gara eta antolakuntzan
aritzeak kirola egiten uz-
tea suposatzen du". Hala
ere, aurrean oztopo guztiak
gainditu eta lasterketa an-
tolatzeari ekin diote.

150 partehartzaile

Elgoibarko duathloia
Euskadiko zirkuitoko las-
terketa da. Zirkuito osoa
amaitzen denean puntu
gehien lortu dituen korri-
kalaria Euskadiko txapel-
dun izango da. Urgaziko
kide honek esan bezala
"zirkuitoko lasterketan,
Oñatin, Gasteizen, Arri-
gorriagan etab. 150 bat
lagun ari dira parte har-
tzen eta horrenbeste espe-
ro dugu Elgoibarrera
etortzea". Korrikalari
ezagunen artean Guillermo
Burgoa ondarrutarra,
Joseba Ortega Agote ei-
bartarra, Iñaki Bodegas
donostiarra, Eneko Lla-

nos Elgoibarko azken
duathloiko irabazlea eta
agian irailan Gernikako
munduko duathloi txapel-
ketan izango den mexika-
rra ere Elgoibarren ikus-
teko aukera izango da.

Euskadiko Zirkuitora-
ko baliagarria den proba
honetan bi kirol ezberdin
egin beharko dira: saltaka
eta bizikleta. Lehendabizi
partehartzaileek 5 kilo-
metro egin beharko dituz-
te saltaka, gero 33 kilo-
metro bizikleta gainean
eta azkenik, beste 5 salta-
ka. Bizikletaz egin behar-
reko ibilbidea aurreko
urteetako bera da: Elgoi-
bar, Mendaro, Deba, Mu-
triku, Mendaro eta Elgoi-
bar. Boxeak Plaza Han-
dian kokatuko dira.

Izen-emateak

Izen-emateak maia-
tzaren 2a baino lehen

egin beharko dira Kirol-
degiko 74 44 15 zenbaki-
ra deituta. Inskripzioaren
zenbatekoa 2.000 pta.koa
da eta diru kopurua Eus-
kadiko Kutzako 3035
0007 27 0070023147
zenbakian sartu behar da.
Dorsala jaso ahal izateko
lasterketa egunean bertan
izen-ematearen ordain-
agiria aurkeztu beharko
da. Azken orduko arazo-
ak ekiditeko, Federazioa-
ren lizentzia tramitatua
eduki beharko da. Fede-
razioaren telefono zenba-
kia honako hau da: 47 25
57.



Duela bi urte izan zen azken duathloia Elgoibarren. Argazkian irabazleak.

EMAITZAK

Futbola

Santurtzi 0 - Haundi 0
Euskalduna 7 - Elgoibar 1 (1.erreg.)
Elgoibar 5 - Munibe 1 (Oho. jub.)
Texas 2 - Elgoibar 1 (2. jub.)
Elgoibar 6 - Antoniano 1 (Neskak)
Urola 0 - Elgoibar 0 (Kad.)
Elgoibar 4 - S. Tomas Lizeoa 4 (Inf.)
Eibartarrak 1 - Pedrusko 2 (2. erreg.)

Saskibaloia

Usurbil 53 - Elgoibar 73

Eskubaloia

Urola 7 - Unceta Elg. 35 (Kad. nes.)
Almen Txiki 10 - Pneumax Elg. 39 (Kad. mut.)
AloDaa Mendi 20 - Tecnomeca Elg. 20 (Jub. mut.)
Leizaran 16 - Pagoaga Elg. 19 (Jub. nes.)

Areto futbola

Elgoibar 3 - Ondarre 3 (auton.)
Elgoibar 1 - Antxeta 1 (1. maila)

Atletismoa

Eibarko Krossa

Alebin neskak:

1goa: Alaitz Merino

2.a: Leire Perez

Alebin mutlak:

5.a: Julen Merino

Benjaminak:

3.a: Aitor Arrillaga

Benjamin txikiak:

5.a: Alberto COrdaba

6.a: Lander Azpiazu

9.a: Imanol Perez

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 26

9:30 Eibartarrak - Bergara (Jub.)

11:15 Elgoibar - S.D. Eibar (Oho. kad.)

13:00 pedrusko - Soraluze (2. erreg.)

17:00 Haundi - Durango

18:45 Elgoibar - Mondra (1. erreg.)

Igandea, 27

10:45 Urki A - Antzuola (Jub.)

12:30 Gazteak - Eibartarrak (2.erreg.)

16:00 Elgoibar - Antoniano (Jub.)

17:45 Elgoibar - Intxaurdi (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 26

16:00 Tecnomeca Elg. - Urola (Jub. mut.)

17:30 Pagoaga Elg. - Arrate AmaDaa (Jub. nes.)

Igandea, 27

12:15 Pneumax Elg. - AloDaa Mendi (Kad. mut.)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 26

19:00 Elgoibar - Hirurok

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 25

22:10 Elgoibar - Gure Txokoa (1. maila)

23:10 Elgoibar - Pacharan Navarra (Auton.)

Pilota, Ikastolan

Ostirala, 25

21:30 Elgoibar - Zaldibia

Gemma Monrealek Iruñean egingo du erakusketa


Gaurtik hasita eta maiatzaren 11ra bitartean, Gemma Monreal margolariak Iruñeko "Zizur Nagusia" Kultur Etxean erakusketa egingo du. 30 artelan dira ikusgai egongo direnak, gehienak baserriak, lekuak eta paisaiak. Dagoeneko hiru erakusketa egin ditu aurtien margolari elgoibartarrak, oraingo hau laugarrena delarik. Gemma berak komentatu digunez, Frantziako Normandiako herri batetik erakusketa bat egiteko gonbitea luzatu diote, irailerako. Oraindik ez daki erakusketa data horretan egiterik izango duen, "baina dudarik gabe aukera oso polita" dela esan digu.

Maiatzeko zine-klubeko datak

Maiatzaren leko zubian ez da zine-klub emanaldirik izango. Hurrengo pelikula, beraz, maiatzaren 8an, osteguna, izango da, nahiz eta oraingoz izenburua zehaztu gabe egon. Maiatzean zehar hauek izango dira zine klubeko egunak: hilaren 8an, 15 eta 16an, 22an eta azken saioa 29an. Maiatzetik aurrera eten egingo da zine klubaren iharduera ekainean aire libreko zinea prestatzeri ekingo baitiote, uztailean Plaza Handian izango dena.

Alberto Ibañez eibartarraren marrazki erakusketa Kultur Etxean

Gaurtik hasita, hilak 25, eta maiatzaren 11ra bitartean Alberto Ibañezek hainbat marrazki ikusgai izango ditu Kultur Etxeko erakusgelan. 40 urteko margolari hau eibartarra da jaiotzez baina duela bost urte Elgoibarrera etorri zen bizi izatera. Ikusgai izango dituen lanak, 30 bat denera, karbontzilo egindakoak dira gehienak. "Collageak ere badaude, hauetan kolorea erabiltzen dut". Pintatu ere egiten du baina oraingoan "marrazkiekin bakarrik egin nahi izan dut erakusketa". Artistika eta estetika aldetik "autodidakta" dela aitortzen du. Elgoibarko Egur eskolan grabatua ikasi zuen eta Kataluniako Clistic



Alberto Ibañez eibartarra eta alboan berak egindako marrazkiak.

Internacional eskolan litografia ikastaroak egindakoa da. Honez gain, Debako Arte Eskolan harria eta brontzea ere lantzen ikasitakoa da. 1983an egin zuen lehen erakusketa Eibarko Kultur Aretoan, "Tragaluz" izenpeko erakusketa kolektiboa. Harrezkero, beste

bost erakusketa egin izan ditu, Hondarribian, Zarautzen, Deban eta Eibarren. Oraingo honetan lehen aldiz Elgoibarren erakutsiko ditu bere lanak, marrazkiak hain zuzen. Bisitarako ordutegia: 19:00-21:00 astegunetan eta 12:00-14:00 jaiegunetan.

autobusak



Izena emateko: Elgoibarko Izarra Kultur elkarte



Antolatzailea
Elgoibarko Izarra



Laguntzaileak
Udala eta Foru Aldundia



Ander Goikoetxea

HOGEIKOA

I K A S L E A - 1 7 U R T E

1 - Merezi al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza? - Bai, ze ez dakizu zer gertaukoan dan eta deskubritzia oso interesantia da. 16 urte ditut, beti Elgoibarren bizi izan naiz eta oso gustura naio.

2- Eutanasia praktikatu al zenue familiako batengan? - Hori pentsatzeko denbora asko bihar da eta egoera konkretua bizi.

3 - Hil eta gero? - Paradisua daua diote baina nik uste dot atsedendalditu luze bat daua.

4 - Lehenengo ni eta gero besteak. - Kasu batzutarako bai. %50ean, baina abusatu gabe.

5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Nere buruari. Nere buruakin diskutatzen dot eta nere buruakin etarazten ditxut ondorio batzuk.

6 - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? - Bizitzan aurrera nixen bitxartian mundua hobetzia, oin dauan bezela ez egotia behintzat. Eta bizioa, karameluak.

7 - Sinesten duzu politikan? Ematen al duzu botorik? - Politikan bai baina politikoengan ez. Ez daukat botatzeko adinik baina ez dot uste botatuko nabanik.

8 - Noiz joan zinen azkeneko manifestaldia batera? - Ez naiz akordatzten, oin dala asko. Ez naiz juten normalian.

9 - Euskalduna naiz eta harro nago? - Noski, hori beti. Hasieratik bukaerara.

10 - Zerk galeratzen dizu loa? - Nik lo oso ondo eitzen dot, sakon-sakon.

11 - Gaztetxea behar al da Elgoibarren? Nolako? - Bai, gazte guztiek dake eskubidia elkarrekin egoteko, elkarrekin muskia entzuteko, ekintzak antolatzekeo...

12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? - Ikasketetan orain arte sufritu dute baina bestela nere ustez

txintxua naiz.

13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxi? - Gehien, nahiz eta ikasketetan denbora guztian nere gainian egon hori ona da, eta gustatzen jata. Bestela, ez diuet defektorik topau oin arte.

14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan? - Oso gutxi, ohia eitzen dot noizian behin, galtzetinak jaso...

15 - Alkoholik gabeko jairik? - Oso zaila da. Alkoholak jendia animau eitzen dau, desinibitxu...


16 - Irakurri duzun azken liburua? - Eskolan bialdutakoren bat, erderaz zan baina izenaz ez naiz akordatzten.

17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Maitasuna sexuakin.

18 - Birjinitatea traba ala bertutea? - Ez bata eta ez bestia. Bere momentuan ailegatzen da eta bitxartian ez da izan bihar ez birtude bat ez traba.

19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu? - Hasieran fuerte joko zian baina onartu ein bihar. Lagun izaten jarraitxuko naban.

20 - Sinesten al duzu betirako maitasunean? - Nik usten dot baietz. Ez zera bila juten, etorri itxen da eta batzutan oso zaila da baina gero bizitza guztirako izan laike.



INTERESEKO
TELEFONOAK

OSASUNA

Antulategia:
Larrialdiak 461111
Txanda hartzeko 743354
Planning-a 742950
Alkoholiko Anonimoak 740385
D.Y.A (anbulantzia) 464622
Gurutze Gorria 743864
Mendaroko Ospitalea 756264
Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
Udal Kirol Patronatua 744415
Kultura Zerbitzua 742158
Mendaroko Udala 756100
Ongizate zerbitzua 741008
Udaletxea 741050
Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
Kirolegia 744415
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia 743525
Musika Eskola 742145
Mintxeta 744315
Parrokia 740842
Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
Herri Eskola 74 08 79
I.M.H. 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre 74 02 67
Ezenarro (Meka) 74 44 80
Ikastola 74 44 41
L.H.I. 74 44 80
Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
El Diario Vasco 74 40 73
El Correo EspaDol 74 10 82
Egin 10 84 21
Zazpiki Irratia 74 34 74

25
ostirala

**18:30 ODOL
ATERALDIA**
P.M. Urruzuno 8an
**19:00 MARRAZKI
ERAKUSKETA**
Egilea: Alberto Ibañez
Kultur Etxean
Maiatzaren 11ra arte
20:00 MANIFESTAZIOA
"Presoak Euskal Herrira"
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: HB
22:15 ZINEA
"Rescate"
**22:30 KAFE
USAINEAN**
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea: E. Izarra

26
larunbata

**13:00 FUTBOLARIEN
ELKARTZEA**
Plaza Handian
**17:00 FUTBOLARIEI
OMENALDIA**
Mintxetan
**19:00 GAIXOEN
OMENEZKO MEZA**
Parrokian
Antolatzailea: Gaixoen
Pastorala

19:30-22:15 ZINEA
"Rescate"

27
igandea
19:30-22:15 ZINEA
"Rescate"

28
astelehena
**8:30 BIRZIKLAIARI
BURUZKO
KANPAINA**
Kultur Etxean
Antolatzailea: Artelatz
22:15 ZINEA
"Rescate"

29
asteartea
**19:00 ELGOIBARKO
IZARRAREN URTEKO
BATZAR OROKORRA**
Kultur Etxean

1
osteguna
19:30-22:15 ZINEA
"101 dálmatas"

2
ostirala
19:30-22:15 ZINEA
"101 dálmatas"

3
larunbata
**15:15 ELGOIBARKO VI.
DUATHLOIA**
Plaza Hnadian
Antolatzailea: Urgazi
19:30-22:15 ZINEA
"101 dálmatas"

4
igandea
**12:30 BANDAREN
KONTZERTUA**
Herriko Antzokian
**16:30-19:30-22:15
ZINEA**
"101 dálmatas"

5
astelehena
22:15 ZINEA
"101 dálmatas"

ZIN



Zuzendaria: Ron Howard
**Antzezela: Mel Gibson, Rene Russo,
Brawley, Gary Sinise**

Rescate

Familia dirudun bateko seme-aren bahiketaren bueltan gertatzen diren gora-beherak azaltzen ditu pelikula honek. Akziozko thriller modura planteiatuta, umea askatzeko prozesuan aitak hainbat gora-behera biziko ditu. Azkenean aitak semea askatzea lortuko du, heroe handien modura.

6 asteartea

**19:00 GURASOEN
BILERA**
Mekanikako aretoan

8 osteguna

22:15 ZINE KLUBA

TXAN- DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
26	Bidasolo	Bidasolo
27	Bidasolo	Bidasolo
28	Ormazabal	Ormazabal
29	Yudego	Anduaga
30	Ettxeberria	Zabaleta
1	Anduaga	Anduaga
2	Ettxeberria	Ettxeberria
3	Ormazabal	Ormazabal
4	Ormazabal	Ormazabal
5	Yudego	Escala
6	Bidasolo	Bidasolo
7	Yudego	Yudego
8	Ormazabal	Ormazabal
9	Bidasolo	Anduaga

Zabaleta: Kalebarren, 9
Plazentzia. Tel: 75 13 84

Escala: Rekalde, 1
Plazentzia. Tel: 75 16 38

Anduaga: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42

OKINDEGIAK

27 igandea Doñ a Mercedes

1 osteguna Eizagirre

4 igandea Foteró



azkue

● 3. mailara igo zireneko 30. urteurrena

1967. urteko apirilaren 23an Elgoibarko Klub Deportiboko taldeak 3. mailara igotzeko partidua jokatu zuen Bessainen. Orduko protagonistak berriz elkartzeko aitzakiarekin, igoerako partidu horren 30. urteurrena zapatuan, hilak 26, ospatuko dute. Orduko futbol jokalaririk (Berriozabal, Bartra, Saiz, Abetxuko etab.), Klub Deportiboko orduko zuzendaritzakoak,... guztira 30 bat lagun biltzea espero dute antolatzaileek. Zapatuan, eguerdiko 1etan Plaza Handian elkartuko dira 1996-67 denboraldiko futbolari eta direktiboak. Segidan luntxa izango dute Baltasarren. Eguerdiko 2:30etan lagun arteko bazkaria egingo dute Goiko-Errota elkartean eta arratsaldean, bostak inguruan, Haundi eta Durango taldeen arteko futbol partiduaren aurretik omenaldi txiki bat izango da Mintxetan. Haritz Dantzari Taldekoek aureskua dantzatu ostean, J.R. Zabala C.D.ko presidentea, J.L. Eizagirre orduko presidentea zena, M. Unzilla orduko direktiborik beteranoena eta K. García final hartako amabitxia izan zenari eskainitako omenaldia hasiko da. Lorak eta txapela emango zaie Karmele García eta Eizagirreri hurrenez hurren eta Unzillak ohorezko sarea egingo du. Eguna polita eta aspaldiko lagunak ikusteko asmotan antolatu dute 30. urteurren hau.

● "Humedades" dantza saioa maitzaren 9an

Haritz Dantzari Taldeak, Udal Musika eta Dantza Fundazioaren laguntzaz, Damian Muñoz Dantza Taldearen "Humedades" emanaldia antolatu du datorren maiatzaren 9rako. Saioa Herriko Antzokian izango da gaueko 22:30etatik aurrera. Dantzariak Blanca Arrieta, Matxalen Bilbao, Isidro Zapatero eta Damian Muñoz dira, azken honen zuzendaritzapean. Dantza taldea 1995ean sortu zen Bilbon. "Cuando me des un respiro", bilbotar hauen bigarren lanak, Madrilgo IX. koreografia txapelketan lehen saria irabazi zuen eta 1996ko otsailean "Dansa Valencia 96"an parte hartu zuen konpainiak. Damian Muñoz dantzari eta koreografoak hainbat ikastaro eman ditu Estatuan bai eta New York-eko Movement Research delakoan ere.



● Elgoibarko Izarraren Batzar Orokorra

Datorren asteartean, hilak 29, Elgoibarko Izarrak urteko batzar orokorra egingo du Kultur Etxeko hitzaldi gelan arratsaldeko 7etatik aurrera. Hara hona bertan landuko diren gaiak: 96ko memoria, 97ko asmo eta aurrekontuak eta galde-erantzun saioa.

● Gurasoen bilera Herri Institutuan

Datorren maiatzaren 6an, asteartea, bigarren maila (BBB eta REM) aurten amaitzen duten ikasleen gurasoentzat bilera izango da arratsaldeko 7etan Herri Institutuko aretoan (Mekan). Orientazio Sailekoen eskutik, batxilergoa eta hezkuntza zikloak aukeratzeko unean, seme-alabak orientatzeko aholkuak emango dituzte. Guraso guztiei dei egiten zaie bilerara joan daitezen.

Bestetik, egun eta toki berean, orain arte Institutuan ikasi ez duten eta datorren ikasturtean bertan ikasleerik ere informazioa emango zaie arratsaldeko 5etatik aurrera.

● HBren manifestaziorako autobusa

Gaur, ostirala, HBk antolatutako Borroka Eguna denez, "Demokrazia Euskal Herriarentzat" lemapan manifestazioa izango da arratsaldeko 8etan Plaza Handitik hasita. Bihar, berriz, alternatiba demokratikoaren plazaratzearen 2. urtemuga aldarrikatzeko manifestaldi nazionala egingo da Donostian. Manifestazioa arratsaldeko 5:30etan hasiko da. Autobusa arratsaldeko 4etan Plaza Handitik aterako da.

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ 1'40x2'00 m-ko sofa-oheta salgai. Estreinatuta gabe. Prezio erdian. ☎ **19 25 91** (Javier)
- ◆ Kitarra elektrikoa, estutzea eta anplia saltzen ditut. ☎ **74 08 34** (Luis)
- ◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. Berriak ☎ **74 12 85**
- ◆ Renault 11 TXE, SS-AC eta Vespa motorra VI-I salgai. ☎ **76 08 51**
- ◆ Mobil-home bat saltzen dut portxe ederrarekin Errioxako Haro herrian. ☎ **79 13 96** (Arratsalde)
- ◆ Sukalde bat saltzen dut egoera onean. ☎ **74 11 40**

◆ EROSI ◆

- ◆ Land Rover motza erosiko nuke. ☎ **74 41 77** (20:00-21:00)
- ◆ Keroseno estufa erosiko nuke. ☎ **74 04 59** (gauetz)

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Gaixoak zaindu, etxea zaindu, enpapelatu lanak, sukaldekoak etab. egiteko prest nago. Carmen Jorquera. ☎ **75 62 57**
- ◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). ☎ **75 26 75** Mari Karmen
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ☎ **74 06 09** Marisabel
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. ☎ **74 22 78**
- ◆ Umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ **74 28 43**
- ◆ Pertsona nagusiak zainduko nituzke, gauetz, asteburuetan... Hiru urteko esperientzia. Klinika axularra naiz. ☎ **74 25 17**
- ◆ **ESKAINZA** ◆
- ◆ Sukaldaria behar da. ☎ **70 06 02 / 906 15 74 03** (Guillermo)

Etxebizitzak

- ◆ Donostian (Paseo Rondan) pisu bat alokatzeko daukat. ☎ **74 18 34**
- ◆ Santa Ana 16an pisua alokatzeko daukat. ☎ **74 37 14** (M. Luisa)
- ◆ Ekainetik aurrera apartamentu bat alokatzen da Benidormen Levanteko hondartzako lehen ilaran. Garbigailua, TB, igerilekua, parking-a. ☎ **74 20 31**
- ◆ Udan, uztailen izan ezik, Santa Polan (Alicante) bungalow-a alogeran ☎ **74 12 13** Carmen (Gauetz)
- ◆ Etxea dut alokatzeko Urasandin. Bista onak, lehenengo ilaran. ☎ **74 23 16**

Bestelakoak

- ◆ DBHko ikasleak **pirata jantziak eta tresnak behar ditugu** antzezlan baterako. Estreinaldia aurki da eta lehenbailehen behar ditugu. Institutura eraman zuen jantziak datu pertsonalekin batera. Gu arduratuko gara itzultzeaz. Eskerrik asko.
- ◆ Paper batean bilduta **dirua aurkitu dut merkatu plazan**. Galdu duenak deitu ☎ **74 33 05** (Gauetz)
- ◆ **Egunero Bilbora** goizean goiz kotxez doan norbaitekin **joan eta gastuak konpartituko** nituzke. ☎ **74 08 78** Maite.
- ◆ Alemanian **au-pair bat** hartuko luke familia jator batek. ☎ **74 39 65**
- ◆ Joan den larunbatean, hilak 12, Arregitorreko plazatxoan umeen **forro polar bat galdu zen**. Aurkitu baduzu deitu. ☎ **74 12 31**
- ◆ Bataiorako **mantoia eta armario bat** behar du Caritas-ek. ☎ **74 15 09/74 12 57**
- ◆ Zuzenbidean lizentziatuak **errenta aitoprenak egiten ditu**. Tel: ☎ **74 01 13**

Agurrak

- ◆ Zorionak **Kristinari** hilaren 12an 9 urte bete zituelako. Bere aita, ahizpa eta familiaren partez.
- ◆ Super zorionak **Maialen Morari** apirilaren 19an urteak bete zituelako. 12 marrubikada zuretzat! Ikatolako 6. mailakoen eta bereziki zure mutilaren partez.
- ◆ **Javier Casado "Txanbo"**ri zorionak hilaren 23an 30 urte egin zituelako. Bere nobixiaren partez.

Agurrak

- ◆ Ehiztaria ehizatu! **Txinarrin**, hireak egin dik, 33 urte!!!! Orain arte behetik gora, hemendik aurrera jubilazioan pentsatzen hasi behar. Zorri on-onak: Remen, Lolo, Super P., Pantxi eta "publiak". Bexitos.



- ◆ **Olatz**, asko akordatzten gara zurekin, eh! Ez pentsatu ezetz. Hogeita hiru mila zorion eta patxo handi bat. Ainhoa eta Danel.



- ◆ Super zorionak **Leire Vazquezi** gaur, hilak 25, 6 urte bete dituelako. Musu handi bat etxeko begi politenari guraso eta Ainhoaren partez.



- ◆ Zorionak **Ainhoa** eta **Leireri** hilaren 19 eta 25ean 9 eta 6 urte bete zituztelako. Lagunen partez.

- ◆ Zorionak hilaren 26an urteak beteko dituen **Aritz Arrietari**, Ane, Mila eta Jose Luisen partez.

- ◆ Zorionak **Aritz Arrietari** 6. mailako adiskideen partez.

- ◆ Zorionak **Aritz Arrietari** lau aitxixa eta amamen partez Alcoceberretik.

- ◆ Zorionak **Ines Gabilondori** Liburutegiko Marrazki Lehiaketa irabazi duelako. Lara Urain, Alazne Eskudero, Ybai León eta Esther Bilbatuaren partez.


- ◆ Zorionak **Amaia Arrietari** hilaren 26an 41 urte beteko dituelako. Leire, Kimetz eta Itsasoren partez.

- ◆ Zorionak **aitxixa Tomasi** hilaren 22an urteak bete zituelako. Familia osoaren partez. Zorionak!!!

- ◆ Zorionak Bilboko **Iñaki Lasari** hilaren 23an bere 14. urtebetetzea izan zelako. Elgoibarko familiaren partez.

Agurrak

- ◆ Zorionak **Ainhoa Ansolari** apirilaren 16an urteak bete zituelako. Ezin genuen zure urtebetetze eguna pasatzen laga eta zure lagunak egun ona pasako zenuela-koan gaude.



- ◆ Zorionak **Alexander Valerori** hilaren 26an 16 urte beteko dituelako. Guraso, amama eta arre-baren partez.




- ◆ Zorionak **Belen Ajea Varóni** maiatzaren 6an 15 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizparen partez.



- ◆ Gaur, hilak 25, urteak betetzen dituen **Jose Luis Huidobrori** zorionak bere emazte eta seme-alaben partez, maitasun osoz.



- ◆ Zorionak eta musu handi bat apirilaren 23an 6 urte bete zituen **Josu Canalesi**. Aiton-amon eta osaba-izeben partez.



- ◆ Zorionak **Mikel Lopezosari** hilaren 24an 6 urte bete zituelako. Guraso eta anaiaren partez.



- ◆ Super zorionak **Nagore Cidi** hilaren 27an 7 urte beteko dituelako. Guraso, aitxixa, amama, Julen eta Idoiaren partez.



- ◆ Zorionak **Nuria López** hilaren 27an 19 urte beteko dituelako. Guraso eta Amaiaren partez.



KARMELO BALDAN

10:00 ? 18:00 Astialdirako taIlerrak eta erakundeen stand?ak

10:30 ? 17:00 Internet, Ikasnet eta El Diario Vasco Gune Esperimentala

YOLDI KIROLDEGIAN

10:00 ? 20:00 Psikomotrizitate jokoak: gaztelu puzgarria, miniatuzko trenak

11:00 Kontu?kotalaria

12:00 Malabaristak

13:00 ? 13:30 Haur?animatzaileak

15:00 ? 16:00 Haur?animatzaileak

BELODROMOAN

10:30 ? 13:30 Pailazoen saioa

15:30 ? 17:00 Pailazoen saioa

ATANO IItean

10:00 ? 12:00 Herri Kirolen Olinpiada

12:00 ? 14:00 Ikastetxeen emanaldiak

16:30 ? 18:00 Herri Kirolen Olinpiadako azken saioa

GASKA KROLDEGIAN

13:30 ? 15:00 Bazkaltzeko lehen txanda

15:00 ? 16:30 Bazkaltzeko bigarren txanda

ESTADIO TXIKIA ETA ESTADIOAREN ARTEKO GUNEAN

10:00 ? 12:30 Ikastetxeen emanaldiak

12:30 ? 14:00 Txaranga eta Trikitilarien emanaldia

14:00 ? 15:30 Ikastetxeen emanaldiak

15:30 ? 17:00 Folk emanaldia

16:30 ? 18:00 Jaialdi amaierako berbena

ESTADIO TXIKIAN

10:00 ? 18:30 Haurrentzako parkea jolas puzgarriekin

17:00 ? 19:30 Euskaraokea

ESTADIO TXIKIKO SARRERA

10:00 ? 18:30 Haurrentzako parke mekanikoa

ESTADIOAREN ATZEKALDEAN

11:00 ? 15:00 Aldi bereko xake partidak eta marrazki lehiaketa


EUSKARAOKEAREN ESZENATOKIAN

10:00 ? 12:00 Ikastetxeen emanaldiak

12:00 ? 14:00 Bertsolariak

15:30 ? 16:00 Bertsolaritza, ideia, kartel eta ipuin lehiaketako sarien banaketa


17:00 ? 19:30 Euskaraokea



GURASOEN

EUSKAL HERRIAN UME GUZTIOK BEHAR DUGU HEZKUNTZA ONA LAGUN ARTEKO HARREMAN ETA GUZTIZ GIRO EUSKALDUNA

GAUZA BERRIAK IKASI NAHIAN BENETAKO ZORIONA



Gremioen gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu !

☎ 74 37 04

ARROZTEGIAK

BIENA
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI
Leihoak-Armairu
enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 29 94

LODOSO
Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE
Leihoak-Armairu
enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL
Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI
Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.
Urasandi 59-61, behe
☎ 74 34 87

PAGOAGA
San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA
Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA
Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

IGELTSERITZA

KIDEEK S.L.
San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ANTONIO MARKEZ
Urasandi, 24
☎ 74 34 18

PATXILLO
Pedro Muguruza, 13-5
☎ 908 31 96 42

PINTURAK

**PINTURAS ELGOIBAR
FERMIN**
Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

JOSE PINTURAK
San Bartolome, 28
☎ 74 12 55
☎ 929 44 23 14

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR
Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA
San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI
Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI
Santa Ana, 12
☎ 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.
Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94